

## HAUR LITERATURA

## Munduaren Hasieran arriskua

## ELSA ETA PARADISUA

Autorea: Mariasun Landa.

Ilustratzailea: Elena Odriozola.


Argitaletxea: Edebé-Giltza, 2015.

Orrialde kopurua: 88 orri.

Salneurria: 8,60 euro.

Asun AGIRIANO

Aldi berean euskaraz eta gaztelaniaz kaleratu du Giltza argitaletxeak Mariasun Landaren "Elsa eta paradisia" liburua, Elena Odriozolaren marrazkiekin. Bibliako paradisuaren interpretazio librea, orain dela urte batzuetako "Ipurtargiak paradisu" ipuinaren ildotik. Kontakizun fantastiko hura agortu barik zegoela, gai berera itzuliz eta umorea eta haur baten egungo arazoak gehituz, ur sakonagoetan sartu gaitu idazleak. Biblia, diote, liburu handia da, kanonikoa eta gaizki ulertua, erlijioarekin bakarrik lotzen bada ere. Ondare garrantzitsua eta ezinbesteko erreferentzia Kultura ulertzeko. «...errespetatu egin dut tradizio judu-kristaua. Tradizio hori galbidean da eta tamalgarria da, besteak beste belaunaldi berriak galtzen ari direlako artea ulertzeko giltza batzuk...». Interesgarria iruditu zaio Mariasun Landa idazle



ezagunari Biblia, eta zehazki paradisia, eta munduaren sorrerako berrazalpenaren ideia berreskuratzea. Zinez eskertzen diogu arriskua hartzea eta haur literaturaren ohi-ko arintasunetik aldentzea.

Kontakizunak irakurketa ugari ditu, kristautua bat, baina ez bakarra, mitologikoa, psikologikoa, eta ludikoa edo errealistagoa

ere bai. Interpretazio bakarretik aldentuz, testu zabala eta librea dugu ikuspuntu agnostikotik aurkeztua. Umorez, maitasunez eta errespetuz idatzitako istorioa.

Haur baten begi kurioso eta utopikoak galderaz betetzen direnean hasten da liburu. Elsak bizitzaren aurrean dituen kezak argitzea nahi du, ezinegona baretzeko laguntza eske dabil, helduago izateko bidean norbaiten bila. Idazle handien obra batzuk ulertu barik, bidean, geratzen diren bezala, istorio honi ere horixe bera gerta dakioke, gai labainkorra aukeratu baitu. Arrisku bikoitza hartu du Landak, irakurlearengan konfiantza osoa jarriz. Liburu, arina itxuran, baina mamitsua edukieran, ez da hitz batean iritzia ematekoa, ez zenbaki batean kalifikatzeko.

Elena Odriozolak egin ditu marrazkiak, zuri-beltzean, errotuladorea erabiliz. Kontakizuna animalia irudiz betetako hostoek zipriltintzen dute, eta, amaieran, pertsona irudiz betetakoak agertzen dira, guztiak ere paradisia mundu bihurtzeko funtsezko osagaiak. Bukaeran, Elsak sentitzen duen gatazka baretzen denean, intxaurpean elkartzen da lagundu dion emakume misteriotsuarekin. Odriozolak, orduan, bi orrialde hartzen duen ilustrazioa aurkezten du, oroitzapenetan murgiltzeko duen ahalmen handiaz eta kontatzeko mintzaira bereziaz.

## «Gizartea eta artea haur eta gazte literaturan», EHUren ikerketa

GARA | BILBO

"Gizartea eta artea haur eta gazte literaturan - Ikerketa kulturalak" liburua kaleratu du Erroa argitaletxeak, EHUrekin elkarlanean osatutakoa. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolak sustatu du liburuaren plazaratzea eta Euskararen arloko Errektoreordetzak lagundu du argitalpena.

Jon Kortazarrek zuzendutako ikerketaren emaitza da ale berria, zazpi ikasleren parte hartzea izan duena. Horiek haur eta gazte literaturari lotutako gai bana landu dute proiektuan.

Bi esparru hartzen ditu kontuan: gizartea eta artea. Hartara, ipuin tradizioarekin emakumeek duten papera, emakumezko pertsonaiak eta kontakizunetako familia ereduak izan dira aztergai lehenengo zatian. Bigarrenean, berriz, komikiek inklusioaren arloan duten pisua, Kirmen Uriberen "Garmendia" bilduma, "Peter Pan" eta Jon Arretxeren "Zazpi kolore" izan dira ikasleek ikerketarako baliatu dituzten gai eta lanak.

## HELDUEN LITERATURA

## Modu egokian desegoki izaten

## JENDE DESEGOKIA

Autorea: Gaizka Zabarte.

Argitaletxea: Susa, 2015.

Orrialde kopurua: 247 orri.

Salneurria: 18,50 euro.

Estibalitz EZKERRA

Peter Zuazo postaria da lanbidez. Hobeto esanda, hala zen elbarri utzi zuen istripua izan zuen arte. Errua Zuazo eta bera gidatzen ari zen motorra aurretik eraman zituen autobus gidariari egotzi zion ertzaintzak, positibo eman baitzuen analisi toxikologikoan. Zuazoren ordea, gertatutakoaren ardura osoa bere nagusiak du, Barrenetxeak. Hark behartu zuen motorra hartzera nahiz eta behin ere ez zuen halakorik gidatu, berea eta gaixo zegoen lankide baten banaketa eremua betetzeko. Ospitaletik bueltan lantokira itzuli zen egunean, lankideak agurtzeko, Barrenetxeari adi ibiltzeko xuxurlatu zion belarrira. Nagusi ohiari mehatxu egiteak on egin zion, eta "Postariaren mendekua" ipuin-bildumari izena ematen dion narrazioari kasu eginez gero, bete ere bete

zuen bere mendekua.

"Postariaren mendekua" lanaz gain, poema-bilduma bat idatzia du Zuazok, "Uzkitik isuritakoak". Aspaldi argitaratu zituen biak, bakoitzetik ale batzuk ere saldu zituen, baina oro har nahiko oharkabean igaro ziren biak. Zuazo poztu egiten da horrekin, ez baitaki nola hartuko lukeen ingurukoek bere lana irakurrita daukatela jakitea. Kontua ez da lotsa, baizik eta egokitasuna. Hots, bere lana ez da irakurle-ria zabal batentzat egokia. Dena den, jendeak zer pentsa dezakeen bost axola dio. Izan ere, Zuazo anakoreta bat da; ez ditu pertsonak gorrotatzen, baina haiekin tratuan egoteak nekatu egiten du. Nahiago du bere kabuz ibili, horrek azken hiru urtetan bere eskuaren laguntzaz masturbatzea eraman badu ere.


Horregatik harrigarria da, baita Zuazoren zat berarentzat ere, Desegokituen Elkartea delakotik jardunaldi batzuetan parte hartzeko gonbidapenari baietz esan izana. Jardunaldien gaia desegokitasuna da, eta elkarteko kideen ustez postari ohia hizlari ezin aproposagoa litzateke. Antza denez, gutxi izanagatik ere zale porrokatuak ditu bere obrak.

Jardunaldiek ez diote interes handirik pizten Zuazori. Nola hitz egin dezake batek

desegokitasunaz modu egokian? Elkarteko lehendakaria, baina, bestelako kontua da. Purgatorio tabernan izandako lehen elkarriketatik gogoko du Zuazok Odile Mores. Tira, bere amets eta fantasia erotiko-pornografikoak kontuan hartuta, gogoko izatea baino zerbait gehiago da harekiko sentitzen duena. Hala ere, misantropo on legez, hasieratik bazterten du Odilekin harremanik izatearen aukera. Lan gehiegi litzateke hori.

Hilerriaren parean kokatuta dagoelako jarri zion Purgatorio izena tabernari jabeak, Anselmo Garciak. Diktadura garaian izan zen hori, 1960ko hamarkadan. Ikuspuntu erlijioso batetik izen desegokia zelako izena ataritik ezabatuz agindu zion Garciari poliziak, baina gertaeraren ondorioz herri osoan zabaldu zen Purgatorioaren ospea. Gaur egun ere izen horrekin ezagutzen dute tokikoek. Bertan hartu zuten Desegokituen Elkarteko kideek desegokitasunaren gaineko jardunaldiak antolatuzko erabakia. Ketchup poto batekin apaiz batek izandako erasoak zerikusirik izan zuen.

Liburuko izenburuak berak adierazten duen bezala, jende desegokiz beteta daude Gaizka Zabartek idatzitako orriak. Horieta batzuk desegoki jaio ziren, Zuazo esaterako, beste batzuk xede hori dute buruan.



Baina hara paradoxa: desegokitasuna bera zehazki zer den, eztabaidagai dago liburu-ko pertsonaien artean. Jardunaldietan ikuspuntu ezberdinetatik helduko diote gaiari, teorikotik zein praktikotik. Jakina, Zuazo izango da guztietan desegokiaren, kanonaren eta sistemaren kontra altxatzen den egile alternatibo bezala. Hain zuzen, literaturaren gaineko eztabaiden itxura handia dute Desegokien Elkartek antolatutako solasaldiek; aditua, kritikoa, sortzaile-gurua, sortzaile alternatiboa... denak daude ordezkaturak, modu egokian ordezkaturak egon ere, beren absurdotasunetan arras barregarri azalduta.